

TOLOSA / 'Jeiki!Jeiki'k eta urteroko hitzorduek izan dute 2011n harrerarik beroena

Tolosarrekin, urteroko hitzordua duten Leidorreko kultur jarduerari eta Jeiki!Jeiki! erakusketari egin zioten harrerarik beroena 2011n. Hala azaldu du udaleko kultura batzordeak egin duen iazko memorian; liburutegietako, musika eskolako, artxiboko, ikuskizun eta musika emanaldietako, zineko, erakusketetako nahiz jaietako jardueren inguruko xehetasunak bildu dituzte bertan.

Liburutegiak

Aranburu liburutegiko nahiz Errota liburutegiko datuak, 2010ekoen antzekoak izan ziren iaz, udalaren txostenaren arabera. Dena den, udako Usabal liburutegiko datuak "inoiz baino altuagoak" izan direla nabarmendu dute arduradunek: "Nabaria da Tolosaldeko liburutegi gehienak abuztuan itxita daudela".

Bisita kopuruari dagokionez, haur liburutegiko datuek bikoiztu egin zituzten helduen liburutegikoak: "Batzuetan bisita kopurua gehiegizkoa da liburutegiak dituen baliabideetarako". Bide beretik, helduen liburutegiak nabarria da, azterketa gairaian bisitari kopurua igotzen dela; iazko maiatzean eta ekainean, gainontzeko hilabeteetako bisita kopuruak bikoitzak izan ziren ia.

Bi liburutegien kasuan, igo egin da bazkide kopurua, eta tolosarren arteko irakurzaletasuna hazten doanaren seinale izan daiteke, izan ere, 6.500 bazkide baino gehiago dituzte Aranburun eta Errotan. Egindako maileguak, berriz, 34.000 baino gehiago izan ziren 2011. urtean.

Artxiboa internetera zabalduz

Artxiboko daturik nabarmenena kontsultena da; izan ere, posta elektronikoko bidez egindako kontsultak izan dira ugariak, 2011. urtean. Artxiboko arduradunek, azken urteotako joera nagusia dela baieztatu dute: "Gero eta galdera gehiago egiten dituzte internetez". Iaz egindako kontsulta eta ikerketen artean, bat nabarmendu du udalak, txostenean: "Ume desagertuen arazoa dela eta, egin diren eskaeretako asko hilerriko lurperatuen liburu- etako kontsultak izan dira".

Kontsultak eta ikerketak jendearen ohitura berrietara nahiz joeretara egokitzeko, Eusko Jaurlaritzak digitalizatzeko ematen dituen diru laguntza bereziak eskatu zituzten iaz. Honen bidez, artxiboko langileek XX. mendeko udal erroldak digitalizatu dituzte.

Era berean, Tolosako Udalak bi langile kontratatu zituen iaz artxiboan aritzeko. Eusko Jaurlaritzaren 7.000 enplegu programaren bidez, bi langile hasi ziren hirigintza artxiboa berrantolatzen, pasa den abenduan.

Tolosako artxiboak, gainera, internetera begirako beste lan bat ere burutu du pasa den 2011 urtean. Gipuzkoako Foru Aldundiaren www.guregipuzkoa.net webgunean, digitalizatuta dauden hainbat argazki sartu dituzte, eta udalak kudeatuko ditu sareko argazki horiek.